

Donostian, bildu dira: Ignacio María Etxaide jauna, buru, Mitxelena; Irigaray, Villasante, Arrue jauna euskaltzaiñak. Zugasti, San Martin, Arruza, Etxaniz, Loidi, Odon Apraiz eta Irigoyen urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

Bernardo Maria Garro jaun urgazlea il da. Bere alargunari eta etxeokoi agertu bekie gure atsekabea.

Begoña Andonegi-k Deba-tik bialdu dauen karta bat irakurri da. Eskerrak emoten ditu Euskaltzaindiak berari eta bere lagunai erantzun eutsienagaitik, eta diñoanez, asko balio izan deutsie.

Francisco Ugalde Idoyaga jaunak Bermeo-tik bialdu dauen karta bat irakurri da. Diño egoki izango litzakeala jakeko solapan eroan leitekean ezaugarri bat egin daigun euskaldunak nortzuk garean igarri daiten eta trenean edo beste edozein tokitan alkar ikusten dogunean euskeraz berbetan asi gaitazan. Erantzun bekio Euskaltzaindiak oso pozik ikusten dauela bere asmoa eta aintzat artzen dauela, baiña oraingoz eztauela artu erabagirik orren gainean.

Odon Apraiz jauna Lovaina/Bruselas-eko batzarretan izan da eta ango barri emon da.

Bilboko zezen-plazan Iraillaren 11-an Bizkaiko Bertsolarien azken txapelketa nagusia egin da. Juan Mugartegi Berriatuakoa gelditu da txapeldun, eta Juan Azpillaga Ondarrukoa bigarren. Lesaka-n Iraillaren 25-ean egin da Nafarroako azken txapelketa nagusia. Andres Narvarte Goizuetakoa gelditu da txapeldun, eta Juan Perurena Arizkun-goa bigarren. Oso ondo urten dabe bai Bizkaiko ta bai Nafarroako txapelketa guztiak.

Euskalerrri osoko bertsolarien txapelketa nagusia egiteaz berba egin da. Arrue jaunak diño Donostian egin leitekeala San Tomas egunez eta "Centro de Atracción y Turismo"-koakaz berba egingo leukeala laguntasuna lortzeko. Emon beitez pausook eta Euskaltzaindiak egin begi Donostian San Tomas egunez Euskalerrri osoko bertsolarien txapelketa nagusia.

San Martin jaunak diño Iñaki Irigaray-gaz berba egin dauela eta oraindiño dirua falta jakola Gipuzkoan antolatu dauen teatrozko txapelketarako, eta Euskaltzaindiak bere izenean Gipuzkoako Ahorro-kaxeari eskabidea egin bear leuskiola. Egin bedi.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

*Euskaltzainburua*

I. M.<sup>a</sup> Etxaide